



ZIENTZIA  
ETA TEKNOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE CIENCIA  
Y TECNOLOGÍA

**50** URTE  
AÑOS  
1968 - 2018

**Biba Zientzia!**  
Ciencia Viva



## **GEOLOGIAKO GRADUA**

### **4. MAILAKO IKASLEAREN GIDA (16 TALDEA- EUSKARA)**

**2026-27 IKASTURTEA**

## **Edukien taula**

|                                                                    |          |
|--------------------------------------------------------------------|----------|
| <b>1.- Geologiako Graduari buruzko informazioa .....</b>           | <b>3</b> |
| Aurkezpena .....                                                   | 3        |
| Titulazioaren gaitasunak.....                                      | 3        |
| Graduko ikasketen egitura .....                                    | 3        |
| Laugarren mailako irakasgaiak .....                                | 4        |
| Egin beharreko jarduera motak.....                                 | 4        |
| Gradu Amaierako Lana (GRAL) .....                                  | 4        |
| Mugikortasuna .....                                                | 5        |
| Kanpoko praktika akademikoak.....                                  | 5        |
| Tutoretza akademikoak.....                                         | 5        |
| Tutoretza Plana (TP) .....                                         | 5        |
| Koordinazioa .....                                                 | 6        |
| Bestelako informazio interesgarria.....                            | 6        |
| <b>2.- Taldearentzako informazio espezifiko .....</b>              | <b>7</b> |
| Ikasleen banaketa irakaskuntza taldeetan .....                     | 7        |
| Taldeari dagozkion jardueren egutegia .....                        | 7        |
| Irakasleak .....                                                   | 8        |
| <b>3.- Laugarren mailako irakasgaiari buruzko informazioa.....</b> | <b>8</b> |

**Gida hau Geologiako Graduko Ikasketa Batzordeak (GEOGIB) egin du**

---

# 1.- Geologiako Graduari buruzko informazioa

---

## Aurkezpena

Geologia Lurra bere osotasunean aztertzen duen zientzia da. Lurraren osaera, egitura, jatorria eta iraganean edo gaur egun bertan gertatzen diren mota guztietako fenomenoak aztertzen ditu, fenomeno horiek arroketan grabatuta utzitako informazioan oinarrituta. Geologoek lurraren gainazaleko eta lurrazpiko informazioa bildu eta interpretatzen dute. Informazio horrek planetaren iraganeko historia, aurreikus daitezkeen aldaketak eta gainerako eguzki sistemarekin duen harremana zehaztea ahalbidetzen du. Planeta honetan bizi gara eta bertatik hartzen ditugu bizitzeko behar ditugun baliabideak, Eguzkitik datozenak alde batera utzita. Horrek sobera arrazoitzen du ezagutza geologikoak gizarteari igorriko dizkioten geologoak edukitzeko beharra.

## Titulazioaren gaitasunak

Geologiako tituludunak geologiari eta horri lotutako oinarritzko ezagutzak zein ezagutza zehatzak eskuratu behar ditu bestelako formakuntza pertsonalarekin batera; izan ere, horri esker, lan-munduko sektore ezberdinetan integratuko baita, izan ikerketan, administrazioan, irakaskuntzan zein enpresa batean.

Titulazio honen bidez, graduari lotutako hurrengo gaitasun orokorrak eskuratuko dituzu:

- Planetako prozesu geologikoen eta horien ondorioen espazio- eta denbora-ikuspegia eskuratzea (mineralak, harriak, fosilak, egiturak, erliebeak...).
- Egungo ingurumen-prozesuak, zein horiei lotutako arazo posibleak ezagutu eta ulertzea; baita Lurreko baliabideak ustiatzeko eta kontserbatzeko beharra ere.
- Azaleko eta geofisikako datuen bidez, lurpeko ereduak lantzeko gai izatea.
- Landa zein laborategiko datu eta behaketak jaso, prozesatu, aztertu eta interpretatzeko gaitasuna garatzea teknika eta tresna aproposen bidez, baita emaitzak txostenetan egoki dokumentatzea ere.
- Arazo geologiko bat definitzeko eta hura konpontzeko estrategiak martxan jartzea, baita hari dagokion txostena idazteko gai izatea ere.
- Informazio geologikoa espezializatu zein espezializatu gabeko publikoari igortzeko gai izatea, idatziz edo ahoz.
- Ezagutza geologikoak aplikatzen jakitea, baliabide naturalak gizartearen eskaeraren arabera eta modu iraunkorrean esploratu, ebaluatu, atera eta kudeatzeko.
- Prozesu eta material geologikoen ezagutza erabiltzea, legeak geologoek jardura eremutzat zehazten dituen esparruetan.
- Landako esperientzia izatea hainbat eremu geologikotan, esaterako, arroketan, egituretan, paisaietan eta beste elementu natural batzuetan.

Era berean, hurrengo zeharkako gaitasunak eskuratuko dituzu:

- Analisi eta sintesi gaitasuna.
- Arazoak konpontzeko gaitasuna.
- Informazioa bilatu eta kudeatzeko gaitasuna.
- Ezagutzak praktikara aplikatzeko gaitasuna.
- Ikasketa eta lan autonomoa zein sormenezkoa.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Denbora antolatu, planifikatu zein kudeatzeko gaitasuna.

## Graduko ikasketen egitura

Geologiako Gradua 4 mailatan banatuta dago. Horietatik lehenengoan (60 ECTS) geologoaren prestakuntzarako oinarritzko irakasgaiak egongo dira, bai Geologiakoak bai gainerako zientzietakoak (Fisika, Kimika, Matematika eta Biologia). Bigarren eta hirugarren mailetan (120 ECTS) Geologiarekin erlazionatutako nahitaezko irakasgaiak bakarrik egongo dira. Azkenik, laugarrenean hautazko irakasgaiak bakarrik (30 ECTS) egin behar dira lehenengo lauhilekoan, 2 "minorretan" multzokatuta: Oinarritzko Geologia eta Geologia Aplikatua. Azken maila honetako bigarren lauhilekoan, aldiz, nahitaezko irakasgaiak (18 ECTS) amaitu behar dira eta Gradu Amaierako lan argitaragabea (12 ECTS) egin behar da, irakasle baten zuzendaritzapean.

Geologiako Gradua 8 modulutan egituratu da eta horietan oinarritzko irakasgaiak, nahitaezkoak eta hautazkoak eta Gradu Amaierako Lana barneratzen dira. Lehenik eta behin, "Geologiarako Oinarriak" izeneko modulua dago (60 ECTS), geologoaren prestakuntzarako oinarritzko irakasgaiak biltzen dituen, nola Geologiatik hala gainerako zientzietatik (Fisika, Kimika, Matematika eta Biologia) hartutakoak, eta lehenengo mailan bakarrik emango dena. Bestalde, "Material Geologikoak" modulua (21 ECTS), gai kristalografiko eta mineralogikoez osatua. Ondoren, "Barne Geologia" modulua (30 ECTS), petrologia, tektonika eta egitura

geologikoekin erlazionatutako irakasgaiez osatua. Gainera, "Kanpo Geologia" (48 ECTS), sedimentologia, estratigrafia, paleontologia eta geomorfologiako irakasgaiez osatua.

Era berean, "Geologiako Gai Orokorrak" modulua (30 ECTS), nagusiki geokimika, geofisika eta kartografiako irakasgaiez osatua. Era berean, "Geologia Ekonomikoa" modulua (54 ECTS), funtsean geoteknia, hidrogeologia eta baliabideetako (energetiko eta industrialak) irakasgaiez osatua. Horiez gain, "Landa Lana" modulua (15 ECTS), kartografiako eta diziplina anitzeko kanpamentuko jardueraz osatua.

Azkenik, "Gradu Amaierako Lana" moduluan ikerketa lan argitaragabea egin behar da, zuzendaritzapean, Geologiako edozein gairen inguruan. Gradu osoan, ikasleek landa lanetan 45 ECTS kreditu inguru osatuko dituzte.

#### Irakastorduen banaketa (ECTS) ikasturteka

| Urtea          | Adarreko oinarritzko irakasgaiak | Beste adar batzuetako oinarritzko irakasgaiak | Gradu Amaierako Lana | Nahitaezko irakasgaiak | Hautazko irakasgaiak | Guztira    |
|----------------|----------------------------------|-----------------------------------------------|----------------------|------------------------|----------------------|------------|
| 1º             | 54                               | 6                                             |                      |                        |                      | 60         |
| 2º             |                                  |                                               |                      | 60                     |                      | 60         |
| 3º             |                                  |                                               |                      | 60                     |                      | 60         |
| 4º             |                                  |                                               | 12                   | 18                     | 30                   | 60         |
| <b>Guztira</b> | <b>54</b>                        | <b>6</b>                                      | <b>12</b>            | <b>138</b>             | <b>30</b>            | <b>240</b> |

### Laugarren mailako irakasgaiak

Irakasgaien denborazko banaketa eta irakaskuntza zama:

| Irakasgaiak                                             | Iraupena       | Kredituak |
|---------------------------------------------------------|----------------|-----------|
| Idatzizko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz      | 1. lauhilekoko | 6         |
| Ingeniería Geológica / Geologia Ingeniaritza            | 1. lauhilekoko | 6         |
| Ingurune Sedimentarioak                                 | 1. lauhilekoko | 6         |
| Mineralogia Analitikoa                                  | 1. lauhilekoko | 6         |
| Meatzte Geologia                                        | 1. lauhilekoko | 6         |
| Micropaleontologia/ Mikropaleontologia (gaztelaniaz)    | 1. lauhilekoko | 6         |
| Recursos Energéticos/ Energia Baliabideak               | 1. lauhilekoko | 6         |
| Tectónica Comparada/ Tektonika Konparatua (gaztelaniaz) | 1. lauhilekoko | 6         |
| Geología Isotópica/ Geologia Isotopikoa (gaztelaniaz)   | 1. lauhilekoko | 6         |
| Arro Analisia eta Geologia Historikoa                   | 2. lauhilekoko | 6         |
| Geofisika                                               | 2. lauhilekoko | 6         |
| Ingurumen Geologia eta Arrisku Geologikoak              | 2. lauhilekoko | 6         |
| Ahazko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz         | 2. lauhilekoko | 6         |
| Gradu Amaierako Lana                                    | 2. lauhilekoko | 12        |

### Egin beharreko jardura motak

Geologiako Graduako ikasketetan irakaskuntza tipologia gisa eskola magistralak (M), ikasgelako praktikak (GA), ordenagailuko praktikak (GO) eta landa praktikak (GCA) erabiliko dira. Jardura hauetako bakoitzaren ehunekoak irakasgai ezberdinetarako finkatutako helburuen arabera aldatzen dira, nahiz eta landa praktikek irakaskuntza osoaren zati handi bat hartzen duten.

### Gradu Amaierako Lana (GRAL)

Gradu Amaierako Lana (GRAL) ikasle bakoitzak zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean banaka egin behar duen proiektu, memoria edo azterlana da. Lan horretan txertatu eta garatu beharko dira, hain zuzen, Graduako ikaskuntza-prozesuan zehar jasotako prestakuntza-edukiak, gaitasunak eta trebetasunak.

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Gradu Amaierako Lana Egin eta Defendatzeari Buruzko Arautegian ikasleek GRALa egiten hasteko ezagutu behar dituzten fase eta bete beharreko baldintzen inguruko xehetasunak azaltzen dira. Hurrengoak dira 2026/27 ikasturteko data garrantzitsuak:

**Aurreinskripzioa (2026ko uztailak 8-10, biak barne):** online betetzeko formularioaren bidezko aurreinskripzioa: [https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/tfg\\_aurreinskripzioa](https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/tfg_aurreinskripzioa)

**Inskripzioa edo izen-ematea:** GRALean izena emateko, 75 kreditu eduki daitezke gehienez egin gabe (4. mailako 60 kredituak eta aurreko ikasturteetatik gehienez gera daitezkeen 15). Bi aukera daude:

- o **2026ko irailak 1-4** (biak barne): irakasleek ikasleekin **adostutako lanen** izenak ematen dituzte eta, aldi berean, adostu gabeko lanen gaiak eskaintzen dituzte, gero ikasleek hautatu ditzaten.
- o **2026ko irailak 16-18** (biak barne): **adostutako lanik ez** duten ikasleek GAUREn bidez egiten dute gaien aukeraketa. Zerrendatik gehienez bost gai hautatu daitezke.

**Esleipena (2026ko irailak 21-25** (biak barne): GRALen gaien behin betiko esleipena egindakoan ikasleei posta elektroniko bidez mezua helarazten zaie.

**Matrikulazioa, memoria entregatzea eta defentsa:** matrikulak bi defentsa deialditarako eskubidea ematen du ikasturteko. Matrikulatzeko, ikasleak Graduako kreditu guztiak gaindituta izan behar ditu, GRALarenak izan ezik. 2026/27 ikasturtean, honako hauek izango dira matrikularako eta defentsarako datak:

| Deialdia | Matrikula eta Memoria entregatzea | Defentsa              |
|----------|-----------------------------------|-----------------------|
| Otsaila  | 2027ko otsailaren 10-12           | 2027ko martxoaren 2-4 |
| Ekaina   | 2027ko ekainaren 16-18            | 2027ko uztailaren 6-8 |
| Abuztua  | 2027ko uztailaren 20-22           | 2027ko irailaren 7-9  |

**GRALari buruzko informazio gehiago:**

<https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/trabajos-fin-grado>

**Geologiako Graduako araudi espezifikoak:**

[https://www.ehu.es/documents/19559/37321287/GEOLOGIA\\_TFG\\_eu.pdf/c2c4d6b8-2b30-4b02-f3a0-7115bff35323?t=1676619808431](https://www.ehu.es/documents/19559/37321287/GEOLOGIA_TFG_eu.pdf/c2c4d6b8-2b30-4b02-f3a0-7115bff35323?t=1676619808431)

## Mugikortasuna

Fakultateak parte hartzen duen mugikortasun programen bidez, ikasleek aukera izango dute lauhileko edo ikasturte oso bat beste unibertsitate batean ikasteko. Bete beharreko baldintzak eta kontuan izan beharreko gainerako informazioa hurrengo estekan ikus daitezke:

<https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/programas-intercambio-alumnado>

## Kanpoko praktika akademikoak

Kanpoko erakundeetan praktikak egitea aukerak zabaltzen dizkie ikasleei lan-munduan sartzeko, eta ezagutza eta gaitasun praktikoa bereganatzeaz ez ezik, lan-eskarmentua ere eskuratzen dute. Geologiako Graduak kanpoko praktika akademikoak egin daitezke, curriculumaz kanpokoak; hau da, boluntarioak dira. Horiek egiteko, 120 ECTS gainditu behar dira. Informazio gehiago:

<https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/insercion-laboral>

## Tutoretza akademikoak

Tutoretza akademikoa prozesu bat da, zeinetan irakasle batek ikasleei aholkularitza eta orientazio akademikoa eskaintzen baitie. Aholkularitza honi esker ikasleak laguntza jasoko du ikasten dituen irakasgaietan. Lauhileko bakoitzaren hasieran irakasle bakoitzak bere tutoretza-ordutegien berri emango du.

## Tutoretza Plana (TP)

Tutoretza Planaren (TP) helburua da ikasleei unibertsitateko bizitzan integratzen laguntzea eta orientazioa eskaintzea ibilbide akademiko osoan zehar.

Zerbitzu honek, funtsean, Geologiako Graduako Orientazio Zerbitzu baten antzera funtzionatuko du; beraz, ikasleek Graduako edo Ikasturteko Koordinatzailearen bidez adostuko dituzte kontsultak, hurrengo koordinatzaileekin kontaktuan jarritz:

- a) **AHAL DELA, Graduako Koordinatzailea:** Sonia García de Madinabeitia Martínez de Lizarduy ([sonia.gdm@ehu.es](mailto:sonia.gdm@ehu.es) 946015455)
- b) **1. mailako Koordinatzailea:** Marije Irabien Gulas ([marijesus.irabien@ehu.es](mailto:marijesus.irabien@ehu.es) 946015453)
- c) **2. mailako Koordinatzailea:** Jon Errandonea Martin ([jon.errandonea@ehu.es](mailto:jon.errandonea@ehu.es) 946012642)
- d) **3. mailako Koordinatzailea:** Arantza Aranburu Artano ([arantza.aranburu@ehu.es](mailto:arantza.aranburu@ehu.es) 946015393)
- e) **4. mailako Koordinatzailea:** Martín Arriolabengoa Zubizarreta ([martin.arriolabengoa@ehu.es](mailto:martin.arriolabengoa@ehu.es) 946012482)

Ikasleren batek nahi izatekotan, behin betiko tutore bat eska dezake, bien artean hala adosten badute eta Graduako Koordinatzaileari horren berri ematen bazaio.

## Koordinazioa

Gradu Ikasketen Batzordeak (GIB) Graduako koordinazioaz arduratzen dira, hau da, Graduaren curriculumaren garapenaz, jarraipenaz, errebisioaz eta hobekuntzaz arduratzen dira. Hurrengoak dira Geologiako Graduako koordinatzaileak:

| Mota                                   | Koordinatzailea                                                            | Kontaktua                                                                                               |
|----------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Gradua TP</b>                       | <b>Sonia García de Madinabeitia Martínez de Lizarduy</b><br>Geologia Saila | <a href="mailto:sonia.gdm@ehu.eus">sonia.gdm@ehu.eus</a><br>946015455<br>F3.S1.22                       |
| <b>1. maila BAT</b>                    | <b>Marije Irabien Gulias</b><br>Geologia Saila                             | <a href="mailto:mariajesus.irabien@ehu.eus">mariajesus.irabien@ehu.eus</a><br>946015453<br>F3.S1.20     |
| <b>2. maila Laborategiko Praktikak</b> | <b>Jon Errandonea Martin</b><br>Geologia Saila                             | <a href="mailto:jon.errandonea@ehu.eus">jon.errandonea@ehu.eus</a><br>946012642<br>F3.S1.16             |
| <b>3. maila Landako Praktikak</b>      | <b>Arantza Aranburu Artano</b><br>Geologia Saila                           | <a href="mailto:arantza.aranburu@ehu.eus">arantza.aranburu@ehu.eus</a><br>946013374<br>F3.S2.16         |
| <b>4. maila GRAL</b>                   | <b>Martín Arriolabengoa Zubizarreta</b><br>Geologia Saila                  | <a href="mailto:martin.arriolabengoa@ehu.eus">martin.arriolabengoa@ehu.eus</a><br>946012482<br>F3.S2.17 |

Geologiako Graduako GIBei buruzko informazio gaurkotua hurrengo estekan kontsultatu daiteke: <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/comisiones-grado#ComisionesdeEstudios5>

Gainera, Graduako irakasgai bakoitzerako koordinatzaile bat izendatuko da, zeina irakasgai hura ematen duen irakasle-taldea koordinatzeaz arduratuko baita. Geologiako Graduako irakasgaietako koordinatzaileak hurrengo estekan kontsultatu daitezke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/coordinacion-asignaturas-geo>

## Bestelako informazio interesgarria

Graduko zenbait irakasgaitan, irakasleek ikasgela birtuala erabiltzen dute irakaskuntza presentzialaren osagarri gisa. Ikasgela horiek eGelan daude ( <https://egela.ehu.eus> ). EGelan sartzeko LDAP erabiltzaile-izena behar da, ikasle bakoitzari esleitzen zaiona ikasle berriko matrikula egitean. LDAP erabiltzailea ere GAUREn sartzeko erabiltzen da, zeina administrazio tramiteak eta ikasleen biziak akademikoari lotutako datuak kontsultatzeko erabiltzen den erreminta informatikoa baita.

Geologiako Graduan matrikulatutako ikasle bakoitzak posta elektronikoko korporatibo propioa dauka; kasu honetan ere, ikasle berriko matrikula egitean helbidea eta pasahitza esleitzen zaio ikasle bakoitzari. Helbide honetara iristen dira irakasleek, eGelak, dekanotza taldeak eta unibertsitateko bestelako estamentuek bidalitako mezuak. Helbide honetara iristen diren mezuak posta elektronikoko pertsonalera birbideratu daitezke. Informazio gehiago hurrengo estekan: [https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/bbc\\_alumnado](https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/bbc_alumnado). Partekatutako fitxategi ostatu-zerbitzua ere badago (<https://www.ehu.eus/es/group/ikt-tic/bildu> ).

Posta korporatiboaren erabilerari edo UPV/EHUko zerbitzu informatikoei lotutako edozein zalantza edo arazo izanez gero, gomendagarria da EAZrekin (Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzua) kontaktatzea <https://lagun.ehu.eus> web orriaren bidez, LDAP erabiltzailea erabiliz. EAZri buruzko informazio gehiago <https://www.ehu.eus/eu/web/ikt-tic/eaz-cau> estekan.

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Ikaslearentzako Arreta Zerbitzuak (ZTFIAZ) aholku ematen die ikasleei, eta enpresetako praktiketan zein akademi-elkartruke programetan parte hartzeko beharrezko izapideez ere arduratzen da. Fakultateko Idazkaritzan kokatuta dago. ZTFIAZri buruzko informazio gehiago <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/atencion-estudiantes> estekan.

**Geologiako Graduari buruzko informazio gehiago:**

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/grado-geologia>.

Fakultateko web orria:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea>

## 2.- Taldearentzako informazio espezifiko

### Ikasleen banaketa irakaskuntza taldeetan

Irakasgai batean talde bat baino gehiago dagoen kasuetan, ikasleei bere taldea zein den jakinaraziko zaie lehenengo asteetan zehar.

### Taldeari dagozkion jardueren egutegia

Zentroko eskola-egutegia webgune honetan kontsultatu daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/calendario>

Ordutegi ofizialak, jarduera bakoitza emango den ikasgelen inguruko informazioarekin batera, eta azterketen egutegi ofiziala fakultateko web-orrian argitaratu eta eguneratuko dira:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/egutegia-ordutegiak>

Horrez gain, aurreko estekan ere Graduko ikasgaietarako izendatutako 5. eta 6. deialdiko tribunalak kontsultatu daitezke.

### Laugarren mailako 2026/27 Ikasturteko Landa Praktikak

| 1. lauhilabetea |             |                         |
|-----------------|-------------|-------------------------|
| Astea           | Eguna       | Irakasgaia              |
| 1               | Irailak 11  | Micropaleontología      |
| 2               | Irailak 15  | Geología Isotópica      |
| 2               | Irailak 18  | Energía Baliabideak     |
| 3               | Irailak 25  | Meatze Geologia         |
| 4               | Urriak 2    | Ingeniería Geológica    |
| 5               | Urriak 9    | Ingurune sedimentarioak |
| 7               | Urriak 23   | Ingurune sedimentarioak |
| 9               | Azaroak 6   | Meatze Geologia         |
| 11              | Azaroak 20  | Ingurune sedimentarioak |
| 12              | Azaroak 23  | Geología Isotópica      |
| 12              | Azaroak 27  | Ingeniería Geológica    |
| 13              | Abenduak 4  | Energía baliabideak     |
| 14              | Abenduak 11 | Meatze Geologia         |

| 2. lauhilabetea |             |                                 |
|-----------------|-------------|---------------------------------|
| Astea           | Eguna       | Irakasgaia                      |
| 18              | Otsailak 12 | Ingurumen geologia eta A. geol. |
| 21              | Martxoak 5  | Arroen Analisia eta Geol. Hist. |
| 22              | Martxoak 12 | Ingurumen geologia eta A. geol. |
| 23              | Martxoak 19 | Ingurumen geologia eta A. geol. |
| 26              | Apirilak 16 | Geofisika                       |
| 27              | Apirilak 23 | Arroen Analisia eta Geol. Hist. |
| 28              | Apirilak 30 | Arroen Analisia eta Geol. Hist. |
| 29              | Maiatzak 3  | Geofisika                       |

## **Irakasleak**

---

Gradu honetako ikasgaiak ematen dituzten irakasleen inguruko informazioa (harremanetarako datuak, tutoretza-orduak) graduako webgune instituzionalean kontsultatu daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/graduak/geologiako-gradua/irakasleak>

Lotura horretan, irakasle baten informazioa ikusi ahal izateko, nahikoa da irakaslearen izenaren gainean klik egitea.

---

## **3.- Laugarren mailako irakasgaiei buruzko informazioa**

---

Irakasgaiak ordena alfabetikoaren arabera ordenatuta daude.

**IRAKASGAIA**

28279 - Ahozko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz

**ECTS kredituak:** 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

IRAKASGAI HAU EUSKARAZ BAINO EZ DA ESKAINTZEN.

Irakasgai hau hautazkoa da Geologia gradu 4. mailako ikasleentzat. Komunikazio zientifiko-teknikoa landuko da: dokumentazioa, berrikuspen bibliografikoak eta testu-genero ohikoenak. Horretarako, espezializazio maila desberdinetako idatzizko eta ahozko testuak landuko dira: ikerketa-artikuluak, dibulgazioak, poster zientifikoak, ahozko aurkezpenak, dibulgazio-hitzaldiak e.a. Berariaz sakonduko da ahozko komunikazioan. Geologia alorreko terminologia eta adierazpideak ere landuko dira aipatutako testu-generoekin lotuta.

Lotura zuzena du gradu berean hautazko irakasgai den Idatzizko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz (IKZTE) irakasgaiarekin (4. mailan egin daitekeena hau ere, lehenengo lauhilekoan). Nolanahi ere, IKZTE irakasgai gehiago sakonduko da idatzizko testu-generoetan, eta Ahozko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz (AKZTE) irakasgai honetan, ahozko eta idatzizko testuak landuko badira ere, lan-ildo nagusia ahozko komunikazioaren bereizgarriak izango dira.

Irakasgaiok lotura zuzena dute baita Geologia Gradu zenbait gaitasun zehatzekin ere:

- G009. Ahozko eta idatzizko komunikazioa jaioterriko hizkuntzan.
- G012. Zuzen erabiltzea Geologiako terminologia, nomenklatura, hitzarmenak eta unitateak.
- G019. Gai izatea informazio geologikoa transmititzeko, ahoz eta idatziz, publiko espezializatuari edo ez-espezializatuari.
- G001. Analisi eta sintesirako gaitasuna.
- G003. Informazioa bilatzeko eta kudeatzeko gaitasuna.
- G006. Lana taldean egiteko gaitasuna.

Horretaz gain, gradu amaierako lana prestatzen ari diren ikasleei oso baliagarri izango zaie irakasgai hau, txosten zientifikoak idazteko eta ahozko aurkezpen akademikoetarako beharrezkoak diren baliabideak eta trebetasunak landuko baitira.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

1. Goi-mailako tituludunek euskararen erabilera eta garapenean duten eraginaren kontzientzia hartzea, eta norberaren komunikazio-rola berraztertzea testuinguru horretan.
2. Informazio zientifikoak bilatzea, ulertzea, sintetizatzea eta kritikoki aztertzea.
3. Ikerkuntzarekin, aholkularitza teknikoarekin eta irakaskuntzarekin lotutako arazoei aurre egiteko bideak adostea, aurkeztea eta argudiatzea, elkarlana baliatuta.
4. Kontsulta-tresnak erabiltzen jakitea (bereziki Interneten eskuragarri daudenak), askotariko komunikazio-egoeretan sor daitezkeen premiei egokiro erantzuteko mailan.
5. Zientzia arloko gaiak komunikatzea, komunikazio-testuinguruaren eskakizunak aintzat hartuta: dibulgazio-hitzaldiak, klase magistralak, kongresuetarako komunikazioak, hitzaldietarako euskarri idatzia, poster zientifikoak...
6. Norberaren intuizio eta esperientzia linguistikoak sistematizatu, azaldu eta berrikustea.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK****EGITARAU TEORIKOA**

1. GAIA: Hizkuntzen kudeaketa ingurune akademiko eta profesional eleaniztunean
  - 1.1. Hizkuntza-eskubideak eta hizkuntza gutxiak
  - 1.2. Hizkuntza gutxiak eta hizkuntza-plangintza
  - 1.3. Euskararen normalizazio-plangintza
  - 1.4. Hizkuntza-ukipena, mailegutza, kalkoak eta hizkuntza-mendekotasuna
  - 1.5. Termino-sorkuntzarako bideoak eta hizkuntza-ukipena
  - 1.6. Hizkuntzen kudeaketarako praktika onak testuinguru akademiko eta profesional eleaniztunean
2. GAIA: Hizkuntza-aldaerak eta hiztunen errepertorio linguistikoa
  - 2.1. Hizkuntza-aldaerak: aldaera geografikoak vs aldaera funtzionalak
  - 2.2. Idatzizko eta ahozko testuen alderaketa
  - 2.3. Ortografia eta ortotipografia
  - 2.4. Puntuazioa eta prosodia
  - 2.5. Aldakortasuna ahozko erregistroetan

- 2.6. Hiztunen erreperitorio linguistikoa eta komunikazio formala  
2.7. Euskara Batuaren Ahoskera zaindua

### 3. GAIA: Ahozkorako diskurtso-estrategiak

- 3.1. Ahozko komunikazio akademikoa  
3.2. Hiztegi eta fraseologia akademikoa: terminoak, kolokazioak eta diskurtso-formulak  
3.3. Pertsuasioa komunikazio akademiko eta profesional multimodalean  
3.4. Baliabide erretorikoak: galdera erretorikoak, errepikapena, adibidegintza, birformulazioa  
3.5. Baliabide fonikoak: etenak, intonazioa  
3.6. Baliabide ez-berbalak

### 4. GAIA: Euskararen lantze funtzionala alor akademikoan

- 4.1. Hizkuntza gutxituen biziberritzea: terminologia eta fraseologia espezializatua  
4.2. Euskararen erregistro akademikoen garapena  
4.3. Aldakortasuna hizkuntza garatuetan eta normalizazio bidean dauden hizkuntzetan  
4.4. Hizkuntza-baliabide espezializatuen ezarpena adituen diskurtsoetan

### EGITARAU PRAKTIKOA

Ordenagailu-gelako praktketan lau proiektu eramango dira aurrera.

- A. proiektua: Euskararen normalizazioari buruzko eztabaida eta iritzi-artikula.  
B. proiektua: Ahoskera zaindua identifikatzea, eta ahoz gorako irakurketan erabiltzea.  
C. proiektua: Helburu didaktikoetarako ahozko komunikazioa: klase magistrala eta bideo tutoriala.  
D. proiektua: Komunikazio akademiko espezializatua: GrA-laren laburpena, defentsa eta dibulgazio-hitzaldia.

### METODOLOGIA

Eskola eta jarduera gehienak praktikoak izango dira, eta, ahal dela, informatika-gelan egingo dira. Horretarako, eGela erabiliko da.

- Banakako lanak
- Talde-lanak
- Ordenagailu-praktikak
- Eskola teorikoak (ariketetan jorraturiko arazo eta egiturak azaltzeko)
- Ahozko aurkezpenak

### IRAKASKUNTZA MOTAK

| Eskola mota                                   | M    | S | GA   | GL | GO | GCL | TA | TI | GCA |
|-----------------------------------------------|------|---|------|----|----|-----|----|----|-----|
| Ikasgelako eskola-orduak                      | 15   |   | 15   |    | 30 |     |    |    |     |
| Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a | 22,5 |   | 22,5 |    | 45 |     |    |    |     |

**Legenda:** M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoa

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

### EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

### KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Ikus ohiko deialdirako eta ezohiko deialdirako orientazioak. % 100

### OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgaiaren ebaluazioa jarraitua izango da. Ebaluazio jarraituak eskatzen du saio guztietara bertaratzea eta zeregin guztiak garaiz entregatzea. Ebaluazio jarraitua egiten hasi eta alde batera uztea erabakitzen duten ikasleek edo hasieratik bukaerako azterketaren bidez bakarrik ebaluatuak izatea aukeratzen duten ikasleek bukaerako azterketa egiteko eskubidea dute (puntuazioaren % 100). Eskubide hori gauzatu ahal izateko, ikasleak ebaluazio jarraituari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat helarazi behar dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari, lauhilekoaren hasierako 9 astean barruan (16-24 asteetan).

Halako idatzirik bidali ezean, ebaluazio jarraiturako aurkeztutako zereginak kalifikatuko dira.

UPV/EHUko Ebaluaziorako Arautegiko 12.2 artikulua araberak, azken probaren pisua irakasgaiako kalifikazioaren % 40 edo txikiagoa bada, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino gutxienez hilabete lehenago eskaria egin beharko dute deialdiari uko egiteko. Eskari hori, idatziz, irakasgaiaren ardura duen irakasleari aurkeztu beharko zaio. Hori horrela, deialdiari uko egiten dioten ikasleek «AURKEZTEKE» kalifikazioa jasoko dute aktan; deialdiari uko egiten ez dioten ikasleek, azken proba aurkezten ez badira, aktan «GUTXIEGI» kalifikazioa izango dute (zenbakizko kalifikazioa: 0).

Ebaluazio jarraiturako tresnak hauek izango dira:

PORTFOLIOA % 30  
AHOZKO AURKEZPENAK % 50  
GALDETEGIAK % 20

EBALUAZIO EZ-JARRAITUA:

Ebaluazio ez-jarraiturako orientazioak ezohiko deialdirako zehaztutako berberak dira.

#### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ezohiko deialdian, baita ebaluazio ez-jarraituan ere, irakasgai osoa edo gehiena azterketa bidez ebaluatuko da. Azterketa ordenagailu-gelan egingo da, hizkuntza-tresna elektronikoekin lotutako gaitasunak ebaluatu ahal izateko. Ahozkoa ere ebaluatuko da. Horretarako, azterketa egunean, idatzia bukatu ondoren, 10 minutuko ahozko aurkezpena egingo dute azterketara aurkezten diren ikasleek ordenagailu-gelan bertan. Aurkezpena egiteko diapositibak prest ekarri beharko dituzte azterketa egiten duten ikasleek.

Bukaerako proban erabiliko diren tresnak hauek izango dira:

TEST MOTAKO PROBA % 20  
ARIKETA PRAKTIKOAK % 15  
IDAZLANA % 15  
AHOZKO AURKEZPENA %50

#### **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

Irakasleak eGelan jarritako materialak.

#### **BIBLIOGRAFÍA**

##### **Oinarritzko bibliografia**

EZEIZA, J; ALDEZABAL, I., ELORDUI, A., ZABALA, I., UGARTEBURU, I., ELOSEGI, K. (2010) PREST: Unibertsitateko komunikazio-gaitasunen eskuliburua. EHUKo Euskara Errektoreordetzaren sareko argitalpena:

<http://testubiltegia.ehu.es/Prest-komunikazio-gidaliburua>

ETXEBARRIA, J.R. (2011) Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak. EIMArek estilo-liburua ETXEBARRIA, J.R. (2014) Komunikazioa euskaraz ingeniartzan. Bilbo. EHU eta UEU

EUSKALTZAINDIA (2018) Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE).

EUSKALTZAINDIA "Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua" (Euskaltzaindiaren 87 araua)

EUSKALTZAINDIA "Adierazpena euskalkien erabileraz: irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan" (Euskaltzaindiaren 137 araua)

Euskaltzaindiaren Ahoskera Batzordea "Ahoskerak axola du"

##### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

ALVARADO CANTERO, L. (2017) "Géneros académicos orales: Estructura y estrategias de la exposición académica" Revista Nebrija de Lingüística Aplicada a la Enseñanza de las Lenguas.

ALCOBA, S. (1999) La oralización. Barcelona: Ariel Practicum.

BONDI, M. eta LORÉS, R. (ed.) (2014) Abstracts in Academic Discourse. Berna: Peter Lang

CASTELLÓ, M. (koord.) (2007) Escribir y comunicarse en contextos científicos y académicos. Conocimientos y estrategias. Crítica y fundamentos. Barcelona: Graó

EUSKALTZAINDIA. 1986. Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak

EUSKALTZAINDIA (1992) Hitz elkartuen osaera eta idazkera

GOTI, M. (ed.) (2012) Academic Identity Traits. Berna: Peter Lang

GUTIÉRREZ RODILLA, B.M. (2003) Aproximaciones al lenguaje de la ciencia. Burgos: Fundación Instituto Castellano y Leonés de la Lengua. Colección Beltenebros.

ITURBE, J. eta TXURRUKA, J.M. (2020) Amets bikoitza. Euskara zientifikotzen eta zientzia euskaratzen. EHUKo Argitalpen Zerbitzua.

KAUR, K., AFIDA, M.A. (2018) "Exploring the Genre of Academic Oral Presentations: A Critical Review" International Journal of Applied Linguistics & English Literature. Vol.7, 1

UZEI. 1982. Maileguzko hitzak: ebakera eta idazkera

VALEIRAS, J., RUIZ, M.N., JACOBS, G. (2018) "Revisiting persuasion in oral academic and professional genres: Towards a methodological framework for Multimodal Discourse Analysis of research dissemination talks" Ibérica: Revista de la Asociación Europea de Lenguas para Fines Específicos (AELFE), Nº. 35: 93-118

VÁZQUEZ, G. (2001) El discurso académico oral. Guía didáctica para la comprensión auditiva y visual de clases magistrales. Madrid: ADIEU.

YOUNG, K.S. eta TRAVIS, H. P. (2018) Oral communication: skills, choices, and consequences. Illinois: Waveland press.  
(4. argitalpena, 1. argitalpena 2012)  
ZUAZO, K. (2005) Euskara batua. Ezina ekinez egina. Elkar.  
ZUAZO, K. (2008) Euskalkiak euskararen dialektoak. Elkar.

#### **Aldizkariak**

Elhuyar aldizkaria

<http://aldizkaria.elhuyar.eus/>

Ekaia. Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Aldizkaria <http://www.ehu.es/ojs/index.php/ekaia>

#### **Interneteko helbide interesgarriak**

<http://www.euskaltzaindia.eus/>

<http://www.hiztegia.net/>

<http://hiztegiak.elhuyar.eus/>

[http://garaterm.ehu.es/garaterm\\_ataria/kontsultak/](http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/kontsultak/)

<http://ehu.eus/ehg/zehazki/>

<http://www.euskara.euskadi.eus>

<http://www.ei.ehu.es>

<http://www.elhuyar.eus/>

<https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/ehulku-aurkibidea/>

<http://ehuskaratuak.ehu.eus/kontsulta/>

[http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.eus/p267-http://garaterm.ehu.es/garaterm\\_ataria/eu](http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.eus/p267-http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/eu) <http://31eskutik.eizie.eus/>

<http://www.erabili.eus/>

<http://gaika.ehu.eus/eu>

<https://zientziakaiera.eus/>

<http://teknopolis.elhuyar.eus/?lang=eu>

<https://ahotsak.eus/>

#### **OHARRAK**

**IRAKASGAIA**

26803 - Arroen Analisia eta Geologia Historikoa

**ECTS kredituak:** 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai honek arro sedimentarioen jatorriaren, arkitekturaren eta bilakaeraren analisi ulerkorra du helburu. Honetarako sedimentuak Lur planetako bilakaera geologikoaren artxiboa nagusia direla onartzen da. Irizpide honek ia geologiaren ezagutza-arlo guztiak arro analisiaren baitan sartzen direla onartzen du. Honela, arro sedimentarioen ezagutza disziplina anitzeko kontzeptu dinamikotzat hartzen da. Geologiako graduako beste irakasgaiekiko erlazioa begibistan dago. Ikasleak ondorengo irakasgaiak ondo ezagutu beharko ditu: Estratigrafia, Sedimentologia eta Tektonika. Ezagutu beharreko irakasgai osagarriak Petrologia sedimentarioa, Egituren Geologia, Paleontologia eta Geokimika dira.

Dena dela, arro-betekin nagusiak sedimentuak izanik, geologia sedimentarioa da disziplina gakoa, arroetako prozesu sedimentarioen eta diagenetikoen bilakaera ikertzeko, baita bertan jardutako tektonika eta sedimentazioaren arteko denbora-espazio erlazio konplexuak eta eragiten duten faktore nagusietaz (itsas-mailaren aldaketak, ekarpen sedimentarioa, klima eta subsidentzia) jabetzeko ere.

Arro sedimentarioak ondo ezagutzea ezinbestekoa da energi-baliabide, mineralak eta industri-arroketako esplorazioan eta kudeaketan. Honi lotuta ingurugiro-arazoei soluzioetarako baita aldaketa klimatikoaren menpeko egokitzapenerako ere erabiltzen da: CO<sub>2</sub>-rako, ondakin erradiaktiboetarako eta ondakin likidoetarako biltegien ikerketan, besteak beste. Arro sedimentarioetako ikerketa ez balitz egingo ez genituzke gure planetako historia eta biziaren historiaren bilakaera ezagutuko.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

Graduaren M05 Modulukoak (Geologiaren alderdi globalak):

-M05GM5.6. Arro sedimentarioen analisi metodoak ezagutzea.

Graduaren M06 Modulukoak (Geologia ekonomikoa):

-M06GM6.6. Baliabide energetiko geologikoak eratzeko eta metatzeko prozesuak ulertzea.

Aurrekoei dagozkien orokorrak:

-G012. Zuzen erabiltzea Geologiako terminologia, nomenklatura, hitzarmenak eta unitateak.

-G013. Planetako prozesu geologikoen eta haien ondorioen (mineralak, arroak, fosilak, egiturak, erliebeak, etab.) espazio eta denbora ikuspegi bat eskuratzea.

-G016. Zorupeko ereduak lantzea, azaleko datuetatik eta datu geofisikoetatik abiatuta.

-G017. Landa eta laborategi laneko datuak eta oharak eskuratzea, prozesatzea, aztertzea eta interpretatzea, teknika eta tresna egokien bidez, eta emaitzak modu egokian dokumentatzea landa koadernoan edo txostenetan.

-G011. Geologiako teoriak, paradigmak, kontzeptuak eta printzipioak ezagutzea eta erabiltzea.

-G022. Landa esperientzia izatea hainbat eremu geologikotan, arrokei, egiturei, paisaiei eta beste elementu natural batzuei dagokienez.

Aurrekoei dagozkien zeharkakoak:

-G004. Ikasitakoa praktikan jartzeko gaitasuna.

-G006. Lana taldean egiteko gaitasuna.

-G001. Analisi eta sintesi gaitasuna.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK****EDUKI OROKORRAK**

-Arro sedimentarioen analisirako metodologia.

-Eraketa mekanismoak.

-Saillapena eta deskribapena.

-Arro sedimentarioen betetzea.

-Geologia Historikoa.

**EDUKI ZEHATZAK**

- Analisi-metodoak: Estratigrafiaren, Prozesu sedimentarioen, Ziklizitatearen, Gertakarien inguruko kontzeptuak eta metodoak; metaketaren eta arro-motaren arteko erlazioa.
- Lurraren egitura eta dinamika: oianrrizko kontzeptuak.
- Arro-eraketa mekanismoak: Litosferaren Luzapena, Flexioa eta Urratzea; Mantuaren dinamikak eragindako efektuak.
- Lurrazal egonkorreko arroak: Arro intrakratonikoak, Arro ozeanikoak.
- Plaken arteko mugimendu dibergenteari erlazonatutako arroak: Rift kontientalak eta proto-ozeanikoak, aulakogenoak, kontinente-ertz pasiboetakoak.
- Plaken arteko mugimendu konbergenteari erlazonatutako arroak: Subdukzio-sistemetako fosak, akrezio-prismak, arkuaurrea, arku-barnea eta arkuatzea, arkuostea eta lurralde-aurreko arroak.
- Urratze arroak: urratze-guneetako arroak.
- Sedimentazio-zikloa: Denudazioa, Ekarpen sedimentarioa, Sedimentazioa eta Gai organikoa.
- Subsidentzia, diagenesia eta historia termikoa: Subsidentzia-analisisa, Diagenesian sortutako eraldaketak eta produktuak, gai organikoaren heltzea.
- Arro-betetzea eta erregai fosilen iragarpen-ereduak: Denborarekiko eboluzioa eta sekuentzia deposizionalen baldintzak; etorkizuneko inter-esa izan dezaketen arroren jatorria.
- Geologia Historikoa: Sarrera, Lurraren jatorria; Eon Arkearra.
- Eon Proterozoikoa: Eón Proterozoikoa.
- Eon Fanerozoikoa: Era Paleozoikoa, Era Mesozoikoa.
- Eon Fanerozoikoa: Era Zenoikoa.

## METODOLOGIA

Ikasketarako irakaskuntz-metodologiak jakintza-azaltze kontzeptual eta deduktiboa, euren diskusioa eta adibideetan sartzeari dugu oinarri. Ikaslearen jarrerak harkorra eta kritikoa izan behar du, bere jakintza propioa erabiliz informazioa aztertzen eta osotzen duelarik.

- Eskola teorikoak: magistralak.
- Gelako praktikak: kontzeptu zein metodologia ezberdineko ariketak.
- Irakasgaiari zuzenki lotutako gaien garapena eta aurkezpena.
- Ordenagailu-praktikak: intereseko aplikazio informatikoren erabilera.
- Landa-irteerak: edukin teorikoak praktikan jartzea, adibide esanguratsuen analisisa, landa-datuaren jasotze eta integratzea.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

| Eskola mota                                   | M    | S | GA | GL | GO | GCL | TA | TI | GCA  |
|-----------------------------------------------|------|---|----|----|----|-----|----|----|------|
| Ikasgelako eskola-orduak                      | 35   |   | 6  |    | 4  |     |    |    | 15   |
| Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a | 52,5 |   | 9  |    | 6  |     |    |    | 22,5 |

**Legenda:** M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.  
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak  
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 35
- Test motatako proba % 30
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 15
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10
- Landa irteeretako txostenak eta ariketak % 10

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio-metodoak. BOPV 2017-III-13.

8.Artikulua

8.2. Ebaluazio jarraia (irakaskuntza-aldian eta honen amaieran).

Ebaluazio-metodologia (azterketa, praktiketako lanak, landa-txostenak,...).

Ebaluazio jarraia (irakaskuntza-aldian):

- Gelako ariketa praktikoen ebaluaketa, entregatzen diren ehinean.
- Landa-irteeren txostenak (landa-gida) ebaluatzea; irteera bakoitzeko landan egindako ariketa praktikoa sartuko da.
- Geologia historikoko gai hautatuen inguruko ahozko aurkezpena behin eskola teorikoak amaituta.

Azterketa-ebaluazioa (irakaskuntza-aldiaren amaieran):

-Idatzizko azterketa teoriko-praktikoa: garatu beharreko proba idatzia eta test motako proba.

Amaierako nota aurreko atalean zehaztutako tresnetan ateratako notak gehitzeaz sortuko da, aipatutako portzentaiak kontuan izanik. Gehiketa egiteko idatzizko azterketa gainditu behar da (5 puntu ateratzea, irakasgaiaren %50aren baliokidea dena).

8.3. Uko egitearena. Ikasleak ebaluazio jarraituari uko egin diezaioke. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengbeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta horretarako lauhilabeteko hasieratik kontatuta, 9 astebeteko epea izango du. Hau eginez gero, ikaslea ebaluazio finalean izango da ebaluatua.

12.2. artikulua: Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40 baino handiagoa, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa "aurkezteke" izan dadin. Aldiz, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40a edo hori baino txikiagoa, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

Irakasgai hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira UPV/EHuren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean Zintotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromiso adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere. Adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

#### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ezhoiko deialdia. BOPV 2017-III-13.

9. Artikulua.

9.1. Ikasleak ebaluazio jarraian irakasgaia gainditu ezin badu irakasgaiaren gaitasunak eta edukinen ezagutza amaierako idatzizko azterketaren bidez akreditatu ditzake.

9.3. Ezohiko deialdian ikasturtean zehar egindako jardueretako nota gorde da (35%) eta hauxe azterketan ateratako notari gehituko zaio (65%).

#### **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

Landa irteerarako materiala (mailua, iparorratza, eskala metrikoa, poltsak, lupa, kuadernoa...).

Segurtasunari lotutako materiala (erropa eta oinetako egokiak, kaskoa, segurtasun-txalekoa, betaurrekoak).

#### **BIBLIOGRAFÍA**

##### **Oinarritzko bibliografia**

Allen, P.A., Allen, J.R. (2005). Basin analysis: principles and applications. 2. edizioa. Blackwell, Oxford, 549 pp.

Allen, P.A., Allen, J.R. (2013). Basin analysis: principles and applications to petroleum assessment. 3. edizioa. Blackwell, Oxford, 619 pp.

Anguita, F. (2011, edición revisada). Biografía de la Tierra. Historia de un planeta singular.

[https://eprints.ucm.es/13263/1/Biograf%C3%ADa\\_de\\_la\\_Tierra\\_revisada\\_por\\_Francisco\\_Anguita\\_-\\_2011.pdf](https://eprints.ucm.es/13263/1/Biograf%C3%ADa_de_la_Tierra_revisada_por_Francisco_Anguita_-_2011.pdf)

Apraiz, A. (2005). Plaka Tektonika: Lurraren funtzionamendua ulertzeko teoria. UEU, Bilbao, 425 pp.

Benedetto, J.L. (2010, tercera edición), El continente de Gondwana a través del tiempo: una introducción a la Geología Histórica. <http://www.librogondwana.com.ar>

Busby, C., Ingersoll, R.V. (1995). Tectonics of sedimentary basins. Blackwell, Oxford, 579 pp.

Busby, C., Azor, A. (2011). Tectonics of Sedimentary Basins: Recent Advances. Wiley. 664 pp.

Coe, A. (2003). The sedimentary record of sea-level change. Cambridge University Press, Cambridge, 288 pp.

Einsele, G. (2000). Sedimentary Basins: evolution, facies and sediment budget. 2. edizioa. Springer, Heidelberg, 792 pp.

Keary, P., Klepeis, K.A., Vine, F.J. (2009). Global Tectonics. 3. edizioa. Wiley-Blackwell, 496 pp.

Macdougall, J.D. (1996). A short history of planet Earth. John Wiley and sons, New York, 266 pp.

Miall, A.D. (2000). Principles of sedimentary basin analysis. 3. edizioa. Springer, Heidelberg, 490 pp.

Miall, A.D. (2016). STRATIGRAPHY A modern Synthesis. Springer, Heidelberg, 454 pp.

<https://link.springer.com/book/10.1007%2F978-3-319-24304-7>

Schettino, A. (2015). Quantitative Plate Tectonics. Physics of the Earth & Plate Kinematics & Geodynamics.

<https://link.springer.com/content/pdf/10.1007/978-3-319-09135-8.pdf>

